**Nº expediente**: 826/2021

**Procedimiento**: Udal titulartasuneko mendietako lursailen aprobetxamenduak arautzen dituen ordenantzaren aldaketa / Modificación de ordenanza municipal reguladora de los aprovechamientos de los terrenos de monte de titularidad municipal

## UDAL TITULARTASUNEKO MENDIETAKO LURSAILEN APROBETXAMENDUAK ARAUTZEKO ORDENANTZA

Arau honen bidez, Zigoitiko Udalak, bere eskumenen eremuan, ondokoa arautu nahi du: Zigoitiko Udalaren jabetzakoak diren mendietako lursailen aprobetxamenduen araubide juridikoa.

### I. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

**1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua.**

1. Ordenantza honen xedea da Zigoitiko Udalaren titulartasuneko mendietako lursailen aprobetxamenduak arautzea, honako aprobetxamendu hauek, alegia: larreak, egurketak, luberriak,erlezaintza aprobetxamenduak eta mendiak behar bezala zaindu eta kontserbatzearekin bateragarri diren aprobetxamenduak. Araudi honetatik kanpo gelditzen dira onura publikoko mendian kokatutako jabetza pribatuko lur eremuak.

2. Zigoitiko Udalaren titulartasuneko mendien aprobetxamenduak honako hauen arabera arautuko dira: Arabako Lurralde Historikoko mendiak arautzen dituen arauaren xedapenak eta horren garapen arauak, eta guztiz errespetatuko da aipatutako arautegiak finkatzen dituen eskumenen esparrua.

3. Arabako Foru Aldundiaren mendien arloan eskumena duen sailak urtero baimendu beharko ditu mendi katalogatuen gaineko aprobetxamenduak; horretarako, Zigoitiko Udalak urtearen hasierako lehen sei hilabeteetan espediente bat egingo du, egin nahi diren aprobetxamendu guztiak biltzeko.

4. Gorbeiako Natur Parkean dagoen lursailaren gaineko aprobetxamenduak

## ORDENANZA REGULADORA DE LOS APROVECHAMIENTOS DE LOS TERRENOS DE MONTE DE TITULARIDAD MUNICIPAL

Con la presente normativa se pretende regular, en el ámbito de competencias que ostenta el Ayuntamiento de Zigoitia, el régimen jurídico de los distintos aprovechamientos de los terrenos de monte de propiedad del Ayuntamiento de Zigoitia.

### CAPÍTULO I.- DISPOSICIONES GENERALES

**Artículo 1.- Objeto y ámbito de aplicación.**

1. Constituye el objeto de la presente ordenanza la regulación de los distintos aprovechamientos de los terrenos de monte de titularidad del Ayuntamiento de Zigoitia, concretamente los aprovechamientos de pastos, fogueras, roturos, aprovechamiento apícola y cuantos aprovechamientos resulten compatibles con la debida conservación y mantenimiento de los montes. Quedan fuera del ámbito de regulación las fincas de titularidad privada enclavadas en el monte de utilidad pública.

2. La regulación de los aprovechamientos en los montes de titularidad del Ayuntamiento de Zigoitia se somete a las disposiciones de la norma reguladora de los montes del Territorio Histórico de Álava y su normativa de desarrollo, con pleno respeto al marco de competencias fijado por la citada normativa.

3. Los aprovechamientos sobre monte catalogado se autorizarán anualmente por el departamento competente en materia de montes de la Diputación Foral de Álava, elaborando el Ayuntamiento de Zigoitia durante el primer semestre del año, el correspondiente expediente compresivo de todos los aprovechamientos que se considere procedente llevar a cabo.

4. Los aprovechamientos sobre terreno incluido en el Parque Natural de Gorbeia se

honako hauen arabera egingo dira: natur parkearen erabilera eta kudeaketaren plan zuzentzailearen aginduak eta parke horretan aplikagarri den arautegi sektoriala.

5. Zigoitiko Udalak, bere eskumenen eremuan, ez du utziko edo baimenduko mendi oso baten edo zati baten erabilera pribatiboa egin dadin edo okupa dadin nekazaritza, abeltzaintza edo baso jarduerekin loturarik ez duten aprobetxamenduak gauzatzeko, baldin eta mendietako lursailetan inpaktua sor dezaketen teknikak erabiltzen badira eta mendietan kalte konponezinak edo narriadura sortzen badute edo mendia behar bezala zaintzeko kaltegarriak baldin badira.

6. Debekatuta dago Zigoitiko udalerriaren lur-eremuetan hidrokarburo ez konbentzionalak miatu, aztertu eta ustiatzea. Era berean, debekatuta dago haustura hidraulikoaren edo fracking-aren teknika erabiltzea, hidrokarburoak miatu, aztertu edo ustiatzeko.

Honako hauek dira hidrokarburo ez konbentzionalak:

- Gas edo likido egoerako hidrokarburoak, ama harriaren barruan harrapatuta daudenak, eta iragazkortasuna milidarcy batekoa baino gutxiagokoa dutenak.
- Gas egoerako hidrokarburoak, ikatz edo harrikatz zain batean harrapatuta daudenak, eta gizakiaren eraginez ez bada irtengo ez direnak.
- Itsasoan lurperatutako metano-hidratoak.

Haustura hidraulikoa edo frackinga honako hau da: hidrokarburoak ateratzeko teknika; horretarako, harkaitz-estratu bat modu hidraulikoan hautsi ohi da, marruskadura gutxiko haustura-isurkin bati hainbat osagai kimiko gehituta eta hori presio handian sartuz.

**II. KAPITULUA.- LARREAK**

**2. artikulua.- Onuradunak**

Larre estentsiboen aprobetxamendua eska dezakete honako pertsona edo entitate hauek:

a) Legearen arabera osatu diren eta egoitza

someterán a las prescripciones del plan rector de uso y gestión del parque natural y de la normativa sectorial de aplicación al citado parque natural.

5. El Ayuntamiento de Zigoitia, en el ámbito de sus competencias, no autorizará o dará consentimiento favorable al uso privativo o la ocupación de todo o parte de un monte para el desarrollo de aprovechamientos no relacionados con actividades agrícolas, ganaderas o forestales, que exijan el empleo de técnicas impactantes sobre los terrenos de monte que puedan suponer un perjuicio o deterioro irreversible sobre los mismos o resulten nocivos para la debida preservación del monte.

6. Se prohíbe la exploración, investigación y explotación de hidrocarburos no convencionales en el territorio del Municipio de Zigoitia. De la misma forma, se prohíbe la técnica de la fracturación hidráulica o fracking, tanto con el objeto de la exploración, investigación o explotación de hidrocarburos.

Se consideran hidrocarburos no convencionales:

- Los hidrocarburos líquidos o gaseosos que estuvieran atrapados en la roca madre y cuya permeabilidad sea inferior a un milidarcy.
- Los hidrocarburos gaseosos que estuvieran atrapados en las vetas de carbón o de hulla y que no saldrían sin la acción humana.
- Los hidratos de metano enterrados en el mar.

Se considerará fractura hidráulica o fracking aquella técnica de extracción de hidrocarburos a base de fracturar hidráulicamente un estrato rocoso, introduciendo a gran presión, un fluido de fractura de baja fricción al que se añaden, una serie de agentes químicos.

**CAPÍTULO II.-PASTOS**

**Artículo 2.- Personas beneficiarias**

Podrán solicitar el aprovechamiento de pasto extensivo las siguientes personas o entidades:

a) Las unidades foguerales, asociaciones o

Zigoitiko udal barrutian duten egurketa unitateak, elkarteak edo abeltzaintza elkarteak.

sociedades ganaderas legalmente constituidas y con su sede en el término municipal del Ayuntamiento de Zigoitia.

b) Ohiko larre eskubideak dituzten udalerrietan legearen arabera osatu diren egurketa unitateak edo elkarteak, betiere udalerriko herritarren eskaerekin abereen karga gainditu ez bada.

b) Las unidades foguerales o asociaciones legalmente constituidas de aquellos municipios que tengan derechos tradicionales de pasto, siempre que no se haya superado la carga ganadera con las solicitudes de los vecinos y vecinas del municipio.

c) Udal honekin gai horren inguruan akordioak sinatu dituzten udalerrietakoak diren egurketa unitateak, betiere udalerriko herritarren eskaerekin abereen karga gainditu ez bada.

c) Las unidades foguerales de municipios que hayan suscrito acuerdos en la materia con este ayuntamiento, siempre que no se haya superado la carga ganadera con las solicitudes de los vecinos y vecinas del municipio.

**3. artikulua.- Betekizunak**

1. Larre aprobetxamenduan interesa dutenek, legearen arabera egiaztatu beharko dute honako betekizun hauek betetzen dituztela onuradun izateko:

a) Adin nagusikoa izatea eta erretiratua ez izatea, adingabe emantzipatua izatea edo lege-gaitasunak dituena, eta abeltzaintzan lan egitea, norberaren lurrak landuz larre laborantzekin.

b) Udal erroldan herritar moduan agertzea, gutxienez urtebeteko antzinatasunarekin eta, gainera, Zigoitiko Udalak helburu horrekin egingo duen abeltzaintza erregistroan egotea. Eskatzaileak udaleko gazte abeltzainak badira, ez dute zertan bete antzinatasun betekizuna.
Kooperatiben, elkarteen edo sozietateen kasuan, sozietateko kide guztiek bete beharko dute betekizun hori.

c) Zigoitiko Udalarekin zerga betebeharrak egunean izatea, baita kanonak, ordainarazpenak eta auzolanak ere.

d) Hazienda edo abeltzaintza funts baten titular izatea eta Arabako Foru Aldundiaren abeltzaintza ustiaketen erregistroan egotea.

e) Animaliak banaka eta aldez aurretik identifikatuta eta markatuta izatea, eskumena duen agintaritzak ofizialki onartzen dituen sistemetako baten bidez.

**Artículo 3.- Requisitos**

1. Para poder resultar beneficiario o beneficiaria, las personas interesadas en el aprovechamiento pascícola extensivo, deberán acreditar en legal forma el cumplimiento de los siguientes requisitos:

a) Ser mayor de edad y no jubilado, menor emancipado o judicialmente habilitado y dedicarse a la ganadería, trabajando tierras propias con cultivos de carácter pascícola.

b) Estar inscrito como vecino o vecina en el padrón municipal, con una antigüedad mínima de un año y, además, hallarse incluido en el registro ganadero que a tal fin se elabore por el Ayuntamiento de Zigoitia. En el caso de que las personas solicitantes sean jóvenes ganaderos o ganaderas el ayuntamiento podrá excepcionar el requisito de antigüedad.
En caso de cooperativas, asociaciones o sociedades, todos los asociados y asociadas deberán cumplir este requisito.

c) Estar al corriente del cumplimiento de las obligaciones fiscales y tributarias con el Ayuntamiento de Zigoitia, así como de los cánones, exacciones y veredas.

d) Ser titulares de una hacienda o fundo ganadero y estar inscrito en el registro de explotaciones ganaderas de la Diputación Foral de Álava.

e) Identificación y marcaje previo e individual de los animales mediante sistemas reconocidos oficialmente por la autoridad competente.

f) Zigoitiko udalerrian edukitzea abere horientzako beharrezkoak diren eta teknika eta ingurumen alorrean egokiak diren lursailak eta/edo ostatua, behar den denboraz eta agirien bidez frogatuak; horiek ahalbidetu beharko dute abere horiek eduki eta elikatu ahal izatea berezko bazka baliabideekin, honako arrazoi hauek direla-eta mendian egon ezin diren aldietan: larre aprobetxamenduen espezieen hazkundea geldiaraztea, osasun koarentenak, mendiaren egoera fisikoa edo beste edozein arrazoi.

f) Disponer, por el tiempo necesario y de manera documentalmente demostrable, de terreno y/o alojamiento suficiente y adecuado técnica y ambientalmente para ese mismo ganado en el municipio de Zigoitia y que permita la estancia y alimentación del mismo con recursos forrajeros propios durante los períodos inhábiles para la estancia en el monte, sea por razones de paralización vegetativa de las especies de aprovechamiento pascícola o por motivos de cuarentena sanitaria, por el estado físico del monte, o por cualquier otro motivo.

Herri larreen aprobetxamendua eskatu aurretik, udalaren abeltzaintza ustiategieen erregistroan izena ematea izapidetzen den unean, ezinbestekoa izango da agiriak aurkeztea behar den denboraz egiaztatzeko pertsona horrek abere horientzako beharrezkoak diren eta teknika eta ingurumen alorrean egokiak diren lursailak eta/edo ostatua dituela herritar den udalerrian eta horiek ahalbidetzen dutela abere horiek edukitzea eta berezko bazka baliabideekin elikatu ahal izatea. Hasiera batean aurkezten diren dokumentuetan aldaketarik badago, urtero jakinaraziko da larreen aprobetxamendurako eskaeran.

Con carácter previo a solicitar el aprovechamiento de pastos comunales, en el momento de tramitar la inscripción en el registro municipal de explotaciones ganaderas, será requisito indispensable entregar documentación que acredite disponer por el tiempo necesario y de manera documentalmente demostrable, de terreno y/o alojamiento suficiente y adecuado técnica y ambientalmente para ese mismo ganado, sito en la localidad de la que sea vecino y que permita la estancia y alimentación del mismo con recursos forrajeros propios. Posteriormente, se notificará anualmente en la solicitud de aprovechamiento de pastos las posibles modificaciones que existan sobre lo inicialmente entregado.

Salbuespen moduan, onartu daiteke ostatu hori Zigoitiko udalerrian ez egotea eta Zigoitiko udalerriko udalerri mugakideetan kokatuta egotea.

Excepcionalmente, se podrá aceptar que este alojamiento no esté situado en el municipio de Zigoitia, pudiendo localizarse en los municipios colindantes al municipio de Zigoitia.

Eskumena duten albaitaritza zerbitzuek egindako kontrol egokien bidez, titularrak egiaztatu beharko du larre eskubidea izango duten abereak instalazio horietan daudela, instalazio horiek erabiltzen dituztela eta hantxe egiten duela lan abere horiekin. Saldu direlako edo halabeharrezko edo osasun egoera gertatzen delako abelburu kopurua murrizten bada, egoki justifikatuko da albaitaritza zerbitzuetan.

Mediante los oportunos controles realizados por los servicios veterinarios competentes, la persona titular deberá acreditar, la presencia, uso y manejo del ganado, acogido al derecho de pasto, en dichas instalaciones. En el caso de reducción del número de cabezas por enajenación o circunstancias accidentales o sanitarias deberá justificarse de forma adecuada ante los servicios veterinarios.

g) Abere osasun eta mugimenduaren kontrolaren alorrean indarrean dagoen araudiaren ondoriozko betekizunak betetzea, bereziki, abereen osasun egoerari buruzko osasun ziurtagiriei eta behar bezala desinfektatutako eta horretarako baldintzak dituzten ibilgailuetan garraiatzeari

g) Cumplir las exigencias derivadas de la normativa vigente en lo referente a control de saneamiento y movimiento pecuario, en especial las certificaciones sanitarias sobre el estado de saneamiento del ganado y su transporte en vehículos debidamente desinfectados y con los requisitos

dagokionez.

establecidos al efecto.

h) Aldez aurretik larreen aprobetxamendurako Zigoitiko Udalaren baimena lortzea.

h) Haber obtenido la previa autorización del Ayuntamiento de Zigoitia para el aprovechamiento de pastos.

i) Landatze eta lehengoratze lanak egiteko jarri diren itxiturak errespetatzea, bai eta suteen ondorioz hesitutako azalerak ere.

i) Respetar los cierres dispuestos para forestación y regeneración, así como las superficies acotadas tras incendios.

j) Norberak lantzea lurra eta zaintzea abereak, bakarrik edo titularrarekin bizi diren senideren baten laguntzarekin, soldatapeko langilerik erabili gabe, egoera berezietan ez bada, nekazaritza ustiaketaren urte sasoiko eskakizunak direla eta. Betekizun hori ez da bete gabekotzat joko honako egoera honetan: aurretik zehaztu den moduan lan egiten jarraitzea eragozten duen gaixotasunen batengatik edo beste arrazoiren batengatik soldatapeko langile bat edo bi erabiltzen badira.

j) Cultivar la tierra y atender al ganado directa y personalmente por sí, o con la ayuda de familiares que convivan con el titular, sin utilizar personal asalariado, más que circunstancialmente, por exigencias estacionales de la explotación agraria. No se considerará incumplido este requisito, aunque se utilicen uno o dos asalariados o asalariadas, en caso de enfermedad sobrevenida o de otra causa que impida continuar el trabajo personal en la forma definida anteriormente.

2. Onuraduna izaera juridikoa duen sozietatea edo auzo elkartea bada, kide guztiek bete beharko dituzte aurretik adierazitako betekizunak.

2. Si se tratase de sociedades o asociaciones de vecinos y vecinas con personalidad jurídica, todos sus miembros deberán reunir los requisitos anteriormente establecidos.

3. Larreen aprobetxamendurako baimen guztiak ematen ez badira, honako egoera hauek aztertu eta baloratuko ditu jarraipen batzordeak, eta Alkatetzak horien gaineko erabakia hartuko
du:

a) Aurreko betekizunak bete ez arren, Zigoitiko udalerrian behi, zaldi, ardi edo ahuntz abeltzaintza ustiategi bat duten pertsonak.

b) Hitzarmenak dituzten eta udalerriko eremuan soilik jarduten ez duten elkarteak edo erakundeak.

c) Behiak, zaldiak, ardiak edo ahuntzak dituzten udalerri mugakideetako pertsonak.

3. En caso de que no se cubriera la disponibilidad de pastos, se estudiarán los siguientes supuestos que se tratarán y valorarán en la comisión de seguimiento, y se someterán a decisión de la Alcaldía:

a) Personas, que sin cumplir con los requisitos anteriores sean titulares de una explotación ganadera de ganado bovino, equino, ovino y/o caprino ubicada en el término municipal Zigoitia.

b) Asociaciones o entidades de ámbito no exclusivamente municipal con la que se establezcan convenios.

c) Personas de municipios colindantes que posean ganado bovino, equino, ovino y/o caprino.

4. Artikulu honetako 1., 2. eta 3. ataletan jasotako eskaerak ebatzi ostean larrerik geratzen bada, udalak lehiaketa bidez esleitu ahal izango ditu aprobetxamendu horiek aurretik azaldutako betekizunak betetzen dituzten abeltzainen, elkarteen edo abeltzaintza sozietateen artean; horiek ez dute zertan bete erroldaren betekizuna, baina honako hauei emango zaie lehentasuna:

4. Atendidas las solicitudes descritas en el apartado 1, 2 y 3 del presente artículo, en caso de que existiese disponibilidad de pastos, el ayuntamiento podrá adjudicar dicho aprovechamiento mediante concurso entre los ganaderos, ganaderas, asociaciones y sociedades ganaderas que reúnan los requisitos anteriormente descritos, salvo el del empadronamiento en la localidad y se primará:

a) Auzotasunaren hurbiltasuna.
b) Abeltzain gaztea izatea.

c) Ustiategia jarduera nagusia izatea.

Kasu horretan, aprobetxamenduagatik ordaindu beharreko kanona gutxienez urtero finkatzen den kuotaren 1,5 bider gehiagokoa izango da.

5. Abereak sartzeko eskaerek onartzeko moduko abereen karga gainditzen badute, udalak mugatu egingo du larre bakoitzean onartuko duen abere kopurua, eta lehentasuna emango die abeltzaintza jarduera nagusitzat dutenei, elkarte eta abeltzaintza sozietateei, eta irizpide teknikoei, ingurumen irizpideei eta gizarte irizpideei erantzunez finkatzen diren moduluen arabera.

**4. artikulua.- Aprobetxamenduen araubide juridikoa**

1. Zigoitiko Udalak urteko planean eskatuko dio foru aldundiari larreen aprobetxamendua, aipatutako itxiturak eta zedarritzeak errespetatuz. Ez dira baimendutakoak baino aprobetxamendu gehiago esleituko.

2. Mendietan egiten den artzaintza, mendiak zaindu eta hobetzearekin bateragarria izan beharko da, eta ahalegina egin beharko da dauden larreak antolatzeko eta hobetzeko, baita handitzeko ere, baina baso masei kalterik eragin gabe. Basoen beharrek lehentasun osoa izango dute, eta artzaintza mugatu ahal izango da argi eta garbi ikusten bada kaltegarria dela erabilera edo zaintzarako, eta debekatu ere egin ahal izango da helburu horiekin bateragarria ez bada.

3. Larreen herriko aprobetxamendua Foru Aldundiak ezarritako baldintzetara egokitu beharko da eta, edozein modutan, abereen karga onargarria errespetatu beharko da. Urtean behin egingo da onargarria den abereen kargaren banaketa, jasotzen diren larreen aprobetxamendurako eskaera kopuruaren arabera.

4. Ahuntzen artzaintza baimenduko da, foru araudian ezarritako betekizunak betetzen baldin badira.

5. Ez da baimenduko kirol edo jolas

a) La proximidad de la vecindad.
b) La condición de joven ganadero o ganadera.
c) La de explotación a título principal.

En este caso, el canon a satisfacer por el aprovechamiento será como mínimo de 1,5 veces el de la cuota fijada anualmente.

5. En caso de que las solicitudes de entrada de ganado excedieran de la carga ganadera admisible, el ayuntamiento limitará la cantidad de ganado a admitir por pastizal, dando prioridad a los ganaderos o ganaderas a título principal, asociaciones y sociedades ganaderas, y en función de los módulos que se fijen atendiendo a criterios técnicos, ambientales y sociales.

**Artículo 4.- Régimen jurídico de los aprovechamientos**

1. El Ayuntamiento de Zigoitia solicitará a la diputación foral el aprovechamiento de los pastos en el plan anual, respetando los cierres o acotamiento señalados. No se adjudicarán más aprovechamientos que los autorizados.

2. El pastoreo en los montes se realizará de forma que sea compatible con la conservación y mejora de los mismos, procurando la ordenación y perfeccionamiento de pastos ya existentes e incluso su ampliación, sin menoscabo de las masas forestales. Se dará preferencia absoluta a las exigencias selváticas, pudiéndose limitar el pastoreo cuando resultare claramente perjudicial para su uso o conservación e incluso prohibirlo cuando resultase incompatible con dichos fines.

3. El aprovechamiento vecinal de pastos deberá ajustarse a las condiciones establecidas por la diputación foral, respetando en todo caso la carga ganadera admisible. Anualmente, se realizará una distribución de la carga ganadera admisible en función del número de solicitudes de aprovechamiento de pastos que se reciban.

4. Se autorizará el pastoreo de ganado caprino siempre y cuando se cumplan los requisitos establecidos en la normativa foral.

5. No se autorizará el pastoreo montano de

instalazio hipikoetakoak diren eta bertako arrazatakoak ez diren zaldiak larrean ibiltzea.

6. Ez da baimenik emango azalera txikietan janaria banatzeko, horren ondorioz lursaila gehiegi zapaldu behar bada eta zorua trinkotzen bada; halaber, ez da baimenik emango mendiko eremu batean abere asko maiz metatzen dituzten jarduerak gauzatzeko.

7. Mendian identifikatu gabe dauden abereak jabegabetzat hartuko dira, eta foru aldundian mendien arloan eskumena duen sailak edo Zigoitiko Udalak bahituran jarri eta jaso ahal izango dituzte. Horiek abereen ardura hartuko dute, edo gordailuzain bat izendatu dute, abereak hamabost egunez zaintzeko. Epe horretan jabearen eskueran izango dira eta abereak itzuli egingo zaizkio. Horretarako, jabea dela egiaztatu beharko du eta sortutako gastuak, okerrak eta kalteak aldez aurretik ordaindu beharko ditu. Horrez gain, dagozkion zehapenak ere jarri ahal izango zaizkio. Epe hori amaituta, abereak enkante publikoan besterenduko dira.

8. Abereak gaixorik egonez gero, bakartu edo hil egingo dira osasun araudiari jarraituta.

9. Foru aldundian mendietako eskumena duen sailak edo Zigoitiko Udalak bazkatzeko eskubiderik ez duten abere identifikatuak ere jaso ahal izango dituzte, eta jabeen eskura jarriko dituzte; jabeak abereez arduratu beharko du eta, horretarako, sortutako gastuak, okerrak eta kalteak aldez aurretik ordaindu beharko ditu. Horrez gain, dagozkion zehapenak ere jarri ahal izango zaizkio. Hamabost eguneko epean hori egiten ez badute, abandonatutzat joko dira eta aipatutako eran besterenduko dira, gastuak ordaindu ahal izateko, eta soberakina abeltzatzaren garapenerako erabili ahal izango da.

**5. artikulua.- Larreen aprobetxamendurako eskabideak**

1. Udalak emango du larreen aprobetxamendurako baimena. Interesdunak eskaera egin beharko du aldez aurretik, erakundeak apirilaren 1etik maiatzaren

équidos de razas no autóctonas que pertenezcan a instalaciones hípicas deportivas o de recreo.

6. No se autorizará el reparto de comida en pequeñas superficies del terreno que originen un pisado excesivo y la compactación del suelo; así como la realización de cualquier actividad que provoque la concentración frecuente de ganado en una misma zona de monte.

7. Las reses no identificadas que se encuentren en el monte serán consideradas mostrencas y podrán ser prendadas y retiradas por el departamento competente en materia de montes de la diputación foral o por el Ayuntamiento de Zigoitia, que se harán cargo de ellas o nombrarán un depositario o depositaria que las cuide durante quince días, en cuyo plazo estarán a disposición de su dueño o dueña, a quien se le entregarán siempre que acredite tal cualidad, previo pago de los gastos, daños y perjuicios causados, independientemente, en su caso, de las sanciones que corresponda imponer. Transcurrido el plazo, el ganado será enajenado en subasta pública.

8. Si las reses se hallaran enfermas, se procederá al aislamiento o sacrificio conforme a la normativa sanitaria.

9. Las reses identificadas pero que no tengan derecho a pastar podrán ser también retiradas por el departamento competente en materia de montes de la diputación foral o por el Ayuntamiento de Zigoitia y serán puestas a disposición de sus dueños o dueñas, que deberán hacerse cargo de ellas, previo pago de los gastos, daños y perjuicios causados, independientemente, en su caso, de las sanciones que corresponda imponer. Si no lo hicieren en el plazo de quince días se tendrán por abandonadas y se procederá a su enajenación en la misma forma para sufragar los gastos, pudiendo destinar la parte sobrante a gastos de desarrollo ganadero.

**Artículo 5.- Solicitudes de aprovechamiento de pastos**

1. El aprovechamiento de pastos se concederá por el ayuntamiento previa solicitud de la persona interesada en el plazo abierto por esta entidad del 1 de abril

15era irekitzen duen epean. Eskabideek honako hauek jaso behar dituzte:

a) Eskatzailearen datu pertsonalak, pertsona fisikoa zein juridikoa izan, eta ustiategi zenbakiaren identifikazioa. Datu horiek agiri bidez egiaztatu beharko dira.

b) Larreetan sartuko den abere bakoitzaren identifikazio zenbakia eta dagokion erregistroan dagoela egiaztatzen duen agiria.

c) Ordenantza honetan aurreikusitako aprobetxamendurako betebeharrak onartzeko eta xede horrekin egindako udal ebazpenak betetzeko konpromisoa.

d) Udalari udalak berak udal larreak kudeatzeko sortu duen abeltzaintza erregistroan datu horiek sartzeko baimena emateko agiria, eta Arabako Foru Aldundiaren Abeltzaintza Zerbitzuari aprobetxamenduak behar bezala kudeatzeko behar dituen datu guztiak eskatzeko baimena. Betiere datu pertsonalak babesteari buruzko arauak xedatutakoaren arabera jokatuko da.

e) Erantzunkizun zibileko asegurua ordaindu izanaren ordainagaria.

f) Larreak erabiliko dituzten abereei egindako azken osasun kanpainaren ziurtagiria.

2. Zigoitiko udalerrian erroldatuta ez dauden eskatzaileek, errolda agiria ere aurkeztu beharko dute eskabidearekin batera. Elkarte eta sozietateek sozietate titularretako kide diren pertsona fisikoen errolda agiria aurkeztu beharko dute.

3. Ez da onartuko aipatutako betekizunak betetzen ez dituen eskabiderik, ezta ezarritako epetik kanpo aurkeztutako eskabiderik ere. Eskabideak ez badu udalak eskatutako betekizunen bat betetzen, interesdunari hamar eguneko epea emango zaio okerra zuzentzeko; emandako epean eskabidea zuzentzen ez badu, eskabide hori ez da aintzat hartuko.

4. Aprobetxamendua eskatu duten abeltzainek eta abeltzaintza elkarte edo

al 15 de mayo En las solicitudes se hará constar:

a) Los datos personales del solicitante, tanto si se trata de persona física como de persona jurídica y la identificación del número de explotación. Estos datos deberán acreditarse documentalmente.

b) Número de identificación de cada una de las cabezas de ganado que accederá a los pastos y acreditación de su inscripción en el registro correspondiente.

c) Compromiso de aceptar las condiciones de aprovechamiento previstas en la presente ordenanza y de acatamiento de las resoluciones municipales emitidas al efecto.

d) Autorización al ayuntamiento para la inclusión de sus datos en el registro ganadero creado en esta entidad para la gestión de los pastizales municipales y a solicitar al Servicio de Ganadería de la Diputación Foral de Álava, cuantos datos sean necesarios para la correcta gestión de los aprovechamientos, de conformidad con lo dispuesto en la normativa de protección de datos de carácter personal.

e) Comprobante de estar al corriente en el pago de un seguro de responsabilidad civil.

f) Certificado de la última campaña de saneamiento practicada a las cabezas de ganado que vayan a usar los pastos.

2. Las personas solicitantes no empadronadas en el municipio de Zigoitia, deberán adjuntar a la solicitud certificado de empadronamiento. En el caso de asociaciones y sociedades, deberá adjuntarse certificado de empadronamiento de las personas físicas que son socios o socias en las sociedades titulares.

3. No será admitida ninguna solicitud que no reúna los requisitos anteriormente citados o que se entregue fuera del plazo establecido. En caso de que la solicitud adoleciera de falta de alguno de los requisitos exigidos el ayuntamiento concederá a la persona interesada un plazo de diez días para la subsanación de la misma, procediendo a su desestimación si la solicitud no es subsanada en el plazo otorgado al efecto.

4. Los ganaderos, ganaderas, asociaciones y sociedades ganaderas solicitantes de

sozietateek Zigoitiko Udalak egindako abeltzaintza erregistroan egon beharko dute.

aprovechamiento deberán hallarse incluidas en el registro ganadero elaborado por el Ayuntamiento de Zigoitia.

5. Udalak larreak erabiltzeko ematen duen baimena besterenezina da.

5. La autorización concedida por el ayuntamiento para el uso de los pastizales es intransferible.

**6. artikulua.- Onuradunen betebeharrak**

Honako hauek dira onuradunen betebeharrak:

a) Larreak udalak finkatutako epe eta baldintzetan erabiltzea. Udalak aldez aurretik foru aldundiaren Nekazaritza Sailaren aldeko txostena izanik finkatuko ditu epe eta baldintza horiek.

b) Larreak baimendutakoez besteko helburuetarako ez erabiltzea.

c) Udalak baimendutako erabilera eta aprobetxamendu guztiak errespetatzea.

d) Udal osasun plana betetzea eta baita animalien osasunari buruz indarrean dauden gainerako legeak ere, eta dagozkion osasun kanpainetan parte hartzea. Bai ustiategian dauden abereak, bai larreetara joango direnak saneaturik izatea.

e) Udalak ekitaldi bakoitzerako ezartzen duen kanona ordaintzea.

f) Benetan prest egotea auzolanetan parte hartzeko, larreak egoera onean mantentzen laguntzeko, sortu ziren helburuetarako erabili ahal izateko.

g) Horretarako sortzen den jarraipen batzordean parte hartzea (bertoko kidea izanez gero). Batzordeak bere funtzionamendu arauak idatziko ditu.

h) Sortetan barneko itxiturarik edo banaketarik ez egitea larreen barruan alanbre hesiak jarriz, salbu eta udalak larreak zaindu eta hobetzeko beharrezkoa dela uste badu eta berariazko baimena ematen badu.

i) Bide-zorrak eta mendian egon daitezkeen itxitura mugatuak errespetatzea.

j) Europar agintariek emandako diru-laguntzen berri ematea, indarrean dagoen legeriaren arabera udalari ekarpena dagokion edo ez zehazteko.

**Artículo 6.- Obligaciones del beneficiario**

Son obligaciones de los beneficiarios:

a) Utilización de los pastos en los periodos y condiciones que señale el Ayuntamiento, previo informe favorable del Departamento de Agricultura de la diputación foral.

b) No utilización de los pastos para fines distintos de los autorizados.

c) Respetar la totalidad de los usos y aprovechamientos autorizados por el Ayuntamiento.

d) Cumplir el plan sanitario municipal y el resto de normativa sobre sanidad animal, y estar incluidos en las correspondientes campañas de saneamiento. Tanto el ganado que se encuentre en la explotación ganadera, como el que se vaya a introducir en los pastizales, deberá estar saneado.

e) Pagar el canon que establezca el ayuntamiento para cada ejercicio.

f) Disposición efectiva a participar en trabajos comunitarios para mantener los pastizales en estado de servir al uso creado.

g) Participación en la comisión de seguimiento (cuando se sea integrante de la misma) que se cree al efecto. La comisión elaborará sus propias normas de funcionamiento.

h) No efectuar cierres interiores o división en lotes mediante colocación de alambradas en el interior de los pastizales, salvo que se obtenga autorización municipal expresa, por considerarse preciso para el mantenimiento y mejora de los pastizales.

i) Deberán respetarse las servidumbres de paso así como cierres acotados que puedan existir en los montes.

j) Dar cuenta de las subvenciones concedidas desde instancias europeas a fin de determinar si corresponde aportación al ayuntamiento, de acuerdo con la legalidad

vigente.

k) Baimendutako larre aprobetxamenduak ez trukatu, saldu, laga edo azpialokatzea (osorik edo zatika) aldez aurretik udalaren berariazko baimenik jaso gabe.

k) No llevar a cabo ninguna permuta, venta, cesión o subarriendo, total o parcial, de los aprovechamientos de pastos autorizados, sin previa autorización expresa municipal.

**7. artikulua.- Abeltzaintza egutegia**

1. Larreek jasan beharreko batez besteko abeltzaintza karga goi mendietako larreen kudeaketa planaren arabera eta alor horretan indarrean dagoen araudiaren arabera zehaztuko da. Kudeaketa planean zehaztutako karga gainditu gero edo karga horretara iritsi ezean, 3. artikuluan adierazi den modua jokatuko da.
2,0 ALU/ha baino gehiagoko noizean behingo gainkargak eragotziko dira. Helburua da urteko batez besteko abeltzantza kargak 1 ALU/ha ingurukoak izatea eta 0,2 ALU/ha baino gehiagokoak izatea beti.

2. Pertsona edo erakunde onuradun bakoitzak 60 zaldi eta behi abelburu izango ditu gehienez eta 480 ardi abelburu. Zigoitiko Udalak urtean behin berrikus ditzake kopuru horiek, eskaerak onar daitekeen gehinezko abeltzaintza karga baino gehiago direnean.

**Artículo 7.- Carga ganadera**

1. La carga ganadera media máxima que deberán soportar los pastizales es la que se detallará en función del plan de gestión de pastos de alta montaña y de la normativa vigente en esta materia. En caso de excederse o de infrautilizarse con lo marcado en el plan de gestión, se actuará como se indica en el artículo 3.
Se evitarán sobrecargas puntuales superiores a 2,0 UGM/ha. El objetivo es que las cargas ganaderas medias anuales se acerquen a 1 UGM/ha y siempre sean superiores a 0,2 UGM /ha.

2. El número máximo de cabezas por persona o entidad beneficiaria será de 60 cabezas en caso de ganado mayor caballar y vacuno, y 480 cabezas en caso de ganado lanar. Estas cifras se podrán revisar anualmente por el Ayuntamiento de Zigoitia cuando las solicitudes superen la carga ganadera máxima admisible.

**8. artikulua.- Artzaintza egutegia. Neguko atsedenaldia**

1. Udal larreetako artzaintza urtean bi hilabete, gutxienez, eten beharko da, larreak leheneratu ahal izateko, abereen osasun programak gauzatzeko eta identifikatu gabeko abereak kontrolatu ahal izateko.

2. Onura publikoko 376 zenbakiko mendian abeltzaintza aprobetxamendua egiteko baimendutako aldia martxoaren 15etik urtarrilaren 15era artekoa izango da urtero.

Udalak, osoko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, funtsezko arrazoiak direla eta, artzaintzarako aldia berrikus dezake abeltzainen eskaeren, klima baldintzen, larreen egoeraren edo berrikuspena justifikatzen duten beste baldintza batzuen arabera.

**Artículo 8.-Calendario de pastoreo. Descanso invernal**

1. El pastoreo en los pastizales municipales deberá ser interrumpido, al menos, durante dos meses cada año, con objeto de favorecer la regeneración de los pastizales, así como facilitar el desarrollo de los programas sanitarios del ganado y el control del ganado no identificado.

2. El periodo autorizado para el aprovechamiento ganadero en el monte de utilidad pública número 376 de titularidad municipal, será el comprendido entre los días 15 de marzo y 15 de enero de cada año.

El ayuntamiento mediante acuerdo plenario podrá revisar el periodo de pastoreo por razones fundamentadas en función de la demanda ganadera, las condiciones climatológicas, el estado de pastos, u otras que justifiquen la revisión.

3. Neguko atsedenaldietan, ezin da abererik gelditu mendian; abeltzainek dute abere taldeak eramateko ardura. Arau hori ez betetzea baimenik gabeko artzaintzatzat joko da ondorio guztietarako.

3. Durante los períodos de descanso invernal ningún ejemplar podrá permanecer en el monte, siendo responsabilidad de los ganaderos o ganaderas la retirada de su rebaño. El incumplimiento de esta norma se considerará a todos los efectos como pastoreo sin autorización.

**9. artikulua.- Osasun plana**

Udalbatzak udal osasun plana onartuko du eta baita haren balizko aldaketak ere, jarraipen batzordeak egindako txostena aztertu ostean.

**Artículo 9.- Plan anitario**

El Pleno aprobará el plan sanitario municipal y sus posibles modificaciones, previo informe de la comisión de seguimiento.

**10. artikulua.- Baimendutako arrazak**

Larreetan honako arraza hauek ibili ahalko dira:

a) Zaldiak: Euskal Herriko mendi zaldia eta Pottoka, besteren artean.

b) Behiak: Pirinearra, Xarolesa eta Terreña, besteak beste.

c) Ahuntzak: Azpigorri eta Azpizuri.

d) Ardiak: Latxa eta Sasiardi, besteren artean.

Larreratzen diren hazitarako abelburuek arraza garbikoak izan beharko dute.

**Artículo 10.- Razas permitidas**

Podrán aprovecharse de los pastos las siguientes razas:

a) Equino: caballo de monte del País Vasco y Pottoka, entre otras razas.

b) Bovina: Pirenaica, Charolesa y Terreña, entre otras razas.

c) Caprina: Azpigorri y Azpizuri.

d) Ovino: Latxa, Sasiardi, entre otras razas

Los sementales que se echen a pastar deberán ser de raza pura.

**11. artikulua. Artzaintza kuotak**

Larreen aprobetxamendua dela eta, artzaintza kuotak ordaindu beharko dira urtero abere bakoitzeko. Udalbatzak ezarriko ditu kuotak, abeltzaintza irizpideak kontuan hartuta eta baita Arabako Foru Aldundiak ezarritako gutxieneko kuotak ere.

Ustiategia udalerritik kanpo duten abeltzainek ezarritako kuota bider 1,5 ordaindu beharko dute.

**Artículo 11.- Cuotas de pastoreo**

El aprovechamiento de los pastos generará la obligación del pago anual de las cuotas de pastoreo por cada cabeza de ganado; será fijado por el Pleno del ayuntamiento, teniendo en cuenta criterios agrarios, así como las cuotas mínimas determinadas por Diputación Foral de Álava.

Los/as ganaderos/as cuya explotación esté situada fuera del municipio abonarán la cuota establecida multiplicada por 1,5.

**12. artikulua.- Aprobetxamendua bertan behera geratzea**

Honako kasu hauetan emandako aprobetxamendua bertan behera geratu ahal izango da gehinez ere hiru alditan, ez betetze mailaren arabera, eta onuradunak ez du kalte-ordainik jasoko eta ez zaio kuota itzuliko:

a) Dagoen abereen eta aitortutako abereen

**Artículo 12.- Rescisión del aprovechamiento**

Se podrá rescindir el aprovechamiento otorgado, sin derecho a indemnización ni devolución de la cuota hasta un máximo de tres períodos dependiendo del grado de incumplimiento, por las siguientes causas:

a) Si se detectara diferencia entre el ganado

artean desberdintasunik dagoela antzemanez gero.

existente y el ganado declarado.

b) Onuradunak ez baditu udalak ezarritako kanon edo tasak ezarritako epeetan ordaintzen.

b) No abonar en los plazos establecidos el canon o tasas impuestas por el ayuntamiento.

c) Onuradunak ez badu larrea eskaeran adierazitakoaren arabera erabiltzen edo gutxiegi erabiltzen badu.

c) No utilización o infrautilización del pastizal por la persona beneficiaria conforme a lo indicado en la solicitud.

d) Mendian kalteak sortzeagatik onuradunari zigorra jarriz gero.

d) Sanción al beneficiario o beneficiaria por daños en el monte.

e) Onuradunak ordenantza honetan ezarritako auzotasuna edo bizilekua izateari uzten badio.

e) Pérdida de vecindad o de residencia impuesta en esta ordenanza.

f) Onuradunak uko egiten badio.

f) Renuncia del beneficiario o beneficiaria.

g) Baimenduta ez dauden abereek larreak erabiltzen badituzte.

g) Uso de los pastizales por ganado no autorizado.

h) Onuradunak Toki Administrazioarekiko zerga betebeharretakoren bat ordainduta ez badu.

h) No estar al corriente de cualquier tipo de obligaciones fiscales frente a la administración local.

i) Onuradunak abere guztiak behar bezala markatuta ez baditu.

i) No marcar adecuadamente a todo su ganado.

j) Onuradunak udalak berariaz baimendutako interesdunei larreak erabiltzen uzten ez badie.

j) Impedir el uso de pastizales por parte de personas interesadas expresamente autorizadas por el ayuntamiento.

k) Larreetarako lursailak beste erabilera batzuetarako erabiltzen badira, arrazoi publikoa dela eta, edo udalak onetsitako proiektuen ondoriozko obrak edo lanak gauzatzeko

k) Utilización de los terrenos destinados a pastos para otros usos, por razón de interés público, o para la ejecución de obras o trabajos derivados de proyectos aprobados por el ayuntamiento.

l) Onuradunak abereei jana azalera txikietan banatzen badie eta horren ondorioz lursaila gehiegi zapaldu behar bada eta zorua trinkotzen bada.

l) Dar de comer al ganado en el monte en pequeñas superficies de terreno que originan un pisado excesivo y la compactación del suelo.

m) Onuradunak ez badu parte hartzen larreak mantentzeko beharrezkotzat jotzen diren auzolanetan.

m) No participar en los trabajos comunitarios que se estimen necesarios para el mantenimiento de los pastizales.

n) Onuradunak ez badu bi aldiz jarraian jarraipen batzordean parte hartzen (bertako kide izanik) justifikaziorik gabe.

n) No participar en la comisión de seguimiento (siendo parte integrante de ella) dos veces consecutivas sin justificación.

o) Baimena bertan behera utzi behar bada onuradun guztien interesagatik.

o) Cuando por los intereses del colectivo de personas usuarias deba ser anulada una autorización.

p) Beharrezkoa baldin bada osasun arrazoiengatik abereak menditik ateratzea.

p) En el supuesto de que sea necesario retirar el ganado del monte por razones

sanitarias.

q) Onuradunak aprobetxamenduaren esleipenean ezarritako beste edozein betebehar betetzen ez badu.

q) Cualquier incumplimiento de las condiciones establecidas en la adjudicación del aprovechamiento.

**13. artikulua.- Abeltzaintza ustiaketen erregistroa**

**Artículo 13.- Registro de explotaciones ganaderas**

1. Larreen aprobetxamendurako eskubidea duten onuradunek, beharrezkoak diren datu guztiak eman beharko dizkiote Zigoitiko Udalari, udalak abeltzaintza ustiaketen erregistroa egin dezan.

1. Las personas beneficiarias del derecho de aprovechamiento de pastos deberán presentar a este Ayuntamiento de Zigoitia los datos necesarios para que éste proceda a elaborar el registro de las explotaciones ganaderas.

2. Abeltzainek eta abeltzaintza elkarte eta sozietateek, abeltzaintza ustiaketen udal erregistroan izena emateko eskabidearekin batera, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute udaletxean:

2. Los ganaderos, ganaderas, asociaciones y sociedades ganaderas, junto con la solicitud de inscripción en el registro municipal de explotaciones ganaderas, presentarán en el ayuntamiento la siguiente documentación:

a) Arabako Foru Aldundiaren nekazaritzako abeltzaintza ustiaketen erregistroan egotearen ziurtagiria.

a) Certificado de inscripción en el registro de explotaciones ganaderas de la Diputación Foral de Álava.

b) Nortasun agiri nazionalaren fotokopia, pertsona fisikoa izanez gero, edo eraketa eskritura, pertsona juridikoa izatenez gero.

b) Fotocopia del documento nacional de identidad, en caso de persono física, o escritura de constitución, en caso de persona jurídica.

c) Zigoitiko udalerrian edo, hala badagojui, Zigoititiko udalerri mugakideetan abereentzat lursail eta ostatu nahikoak dituela eta horiek ingurumen eta teknika aldetik egokiak direla egiaztatzen duen dokumentazioa: ustiaketari atxikitako lur eta lursailen zerrenda (non dauden eta edukitzeko erregimena zein den adierazi beharko da) eta ustiaketari atxikitako eraikuntzen eta instalazioen zerrenda (horien azalera, funtzioa eta edukitzeko erregimena zein den adierazi beharko da).

c) Acreditación documental de la posesión de terreno y alojamiento suficiente y adecuado técnica y ambientalmente para el ganado en el municipio de Zigoitia, o en su caso, en los municipios colindantes a Zigoitia: relación de tierras y parcelas adscritas a la explotación con indicación de su ubicación y régimen de tenencia, y construcciones e instalaciones adscritas a la explotación con indicación de su superficie, función y régimen de tenencia.

3. Mendiak kudeatzen dituen entitatea denez, Zigoitiko Udalak uneoro adierazpenen eta aurkeztutako datuen egokitasuna eta egiazkotasuna kontrolatzeko eskubidea du; horretarako ikuskaritzak egin ahal izango ditu eta abeltzainak edo artzainak ezingo dio ikuskaritza horri oztoporik jarri.
Halaber, uneoro egokitzat jotzen dituen egiaztapenak egin ahal izango ditu eta, hala badagokio, inskripzioetan eragina izango duten aldaketak egin ahal izango ditu edo inskripzioa bertan behera utz dezake, ustiaketa desagertu dela edo beharrezkoak

3. El Ayuntamiento de Zigoitia, como entidad gestora de sus montes, se reserva el derecho de controlar en todo momento la exactitud y veracidad de las declaraciones y datos presentados mediante inspecciones a las que no se podrá poner impedimentos u obstáculo alguno por el ganadero, ganadera, pastor o pastora.
Asimismo, podrá realizar, en todo momento, las comprobaciones que estime pertinentes y proceder, en su caso, a las modificaciones afectas a la inscripción, o a su cancelación si se acredita la desaparición de la explotación o que la misma deje de reunir

diren betekizunetakoren bat betetzeari utzi diola egiaztatzen badu; dena dela, aldez aurretik interesdunari entzunaldia emango dio.

4. Abeltzainek eta abeltzaintza elkarte edo sozietateek udalari jakinarazi behar dizkiote abeltzaintza ustiaketaren egoera fisiko edo juridikoan gertatutako aldaketa guztiak.

**14. artikulua.- Jarraipen batzordea**

1. Jarraipen batzordea sortuko da larreak hobeto erabili eta aprobetxatzearekin lotutako kontuei buruz kontsultak egiteko, aholkularitza emateko eta koordinazio lanak gauzatzeko. Jarraipen batzordeak honako kide hauek izango ditu:

a) Zigoitiko Udalaren bi ordezkari, horien artean abeltzaintza eta mendien arloko arduradun politikoa.

b) Larreen aprobetxamendurako baimena jaso duten abeltzain guztien arteko bi ordezkari.

c) Hitzarekin baina botorik emateko eskubiderik gabe parte hartu ahal izango du batzordean txit gorena Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko ordezkari batek. Udalak, beharrezkotzat jotzen badu, teknikariak gonbidatu ahal izango ditu batzordean parte hartzera.

2. Berdinketa gertatuz gero, Zigoitiko Udaleko abeltzaintza eta mendien arloko arduradun politikoaren botoa kalitate botoa izango da.

**15. artikulua.- Udalerri mugakideetako abereak**

Udalak malgutasun eremuak ezarri ahalko ditu udalerri mugakideetako abereentzat, baldin eta ez bada larren inguruko hitzarmen historikorik, eta betiere honako baldintzak betetzen badira:

a) Urtero ezartzen diren osasun betebeharrak betetzea.

b) ALU/ha oreka izatea larre eremu mugakiteetan.

c) Ordenantza honetan arrazei dagokienez ezarritako arauak betetzea.

